

1997-98ko IKASURTEA OSOGUNEKO ERAKASKERA

ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

- 1. Uste duzue ia Baionak eta Miarritzek
2. Nola dabilen etxeen jabeak?
3. Zer dio Jaun kara ilhunkelakoa k?

BIZIA BAIONAN 3.

Mintzo dire hiriz kanpo, langile bizitegi batzu, merke eta goxo, aski handi eta garbi, osasundegiño batzu ezin gehiago laketak, egiteaz. Errexago da mintzatzea holako ametsez, obratzea baino.

Gero zer ez dugu behar ikusi? Baionak eta Miarritzek, etxez etxe, baratzez baratze, itzalpez itzalpe, biek elgar hunkiturik bat egiten dutela ikusiko ditu omen aski luzaz bizi denak.

Anhartean21, sakela hemen gori ez duenak seguru du parabi-suko zoriona baino maizago ikustea... debrua, ezin biziz.

Oro gainez gain kariotuz doazi; orotako gehienik aloimenduak22. Bospasei barne exkax, karrika hits batean, pagaraziko itzute, kanpañan etxalde on bat bere lurrekin bezenbat; hiru, lau, bortz, sei ehun.

Ez dakite aski zer galda nausiek.

Urthatsez23 heldu zaitzu, irri zuri bat ezpainetan: «Urthe on —Bai zuri ere. —Je vous apporte pour éternelles, cent, deux cents, trois cents francs d'augmentation du loyer —Baduzuia burutik? —C'est à prendre ou à laisser. —Bonjour. —Bonjour monsieur».

Zer eginen da? Behar da baietz ihardetsi, edo joan, antzara ferratzerat24. Batek hiru ehun... bertzeak bortz bardin galdatuko daitzu.

Jaun bat egun hoitan bere botigaren bortha alhazean25 zagon, kopeta zimurrik. Galdatzen diot: «Zer duzu kara26 ilhun hori? —Bazinaki!... Ikusten duzu magasin27 hau; zeren den paradan, bi mila libera pagatzen nuen. —Eta zer duzu, koñita28 ukan? —Ez; barda29 izan zaut nausia, mila liberaz emendatzen; bainan hitze-maiten dautalarik (erdi trufaz30) bizi deno31 ez dautala gehiago nendatuko.

«Orok toki hauk huts ditzagun merezi lukete diren bezalakoeak. —Eta ez diozu deus erran?, —Zertako? Ala irri egin zezadan su-durrera? Goazin ahal duguno. Leher egiten dugunean, ez dire nausiak ere ezteietan izanen».

ADITZ IKASKUNTZA

- 31. Doazi 32. Daitzute
33. Zaitzu 34. Dakite - Bazinaki
35. Zezadan.

Table with 2 columns: Présent and Imparfait. Rows include Ni noa, Hi noa, Zu zoatzi, Hura doa, Gu goatzi, Zuek zoazte, Heiek doatzi.

32. UKAN Conj. à dble cplt Indic. Présent. O.S. C.I.S

Table for UKAN conjugation. Includes Neri = à moi and examples like Zuk dautazu = vous me l'avez, Harek daut = il me l'a.

Table for UKAN conjugation. Includes Zuri = à vous and examples like Nik dauzute = je vous l'ai, Harek dauzu = Il vous l'a.

34. JAKIN Indic. Présent O.S. Eventuel Présent O.S.

Table for JAKIN conjugation. Lists forms like Nik dakit = je le sais, Heiek dakite = ils le savent, and plural forms.

33. IZAN - Régime Indirect. Indic. Présent.

Table for IZAN conjugation. Lists forms like Hura da = Il est, Hura (lui) zait (zaut) (à moi) = il m'est.